

Antzezlan labur hau, lan osoago baten zatia da: "Planteamendua-Korapiloa-Desenlazea" izeneko teatro ariketa, Bilboko Pabilioi 6-ean 2015ean eskenaratu zena, gastelaniazko bertsoan (Planteamiento, Nudo y Desenlace). Ikuskizunean, egitura dramatikoa aztertzen da, hiru istorio desberdinen bidez.

Atal hau antzezlanaren bigarren zatia da, "Korapiloa", hain zuzen. Eta gaia benetako gertaeretan oinarritua dago: "Urtzi eta Telle"-ren kasua, alegia.

## **SPRAY**

### **(korapiloa)**

Publikoa erdizka argituriko espazio batean sartzen da, non polizia sirenak, ke-poteen jaurtiketak eta manifestarien zaratotsak entzuten diren. Handik gutxira, zarata ozenagotzen da, manifestari eta poliziak borrokan hasi direla adieraziz.

Kaleko horma bat argitzen da. Bi gazte, jertsearen txanoak burua estalirik, hormara hurbiltzen dira, spray banarekin, eta pintada bat idazten hasten dira, off-ean borroka entzuten jarraitzen dugun bitartean.

Gazteek "KAPIT" besterik idatzi ez dutenean, gizon bat hurbiltzen zaie.

#### **Dramaturgoa**

Egon!

Gazteek idazteari utzi eta artega begiratzen diote ezezagunari.

Oharkabean, off-eko zarata desagertzen doa.

#### **Gazte 1**

Ze...?

#### **Dramaturgoa**

Mesedez, gelditu une batez, eta erreparatu ekintza honek sortuko duen kausa-efekto kateari.

#### **Gazte 2**

Utzi bakean eta ospa hemendik!

#### **Dramaturgoa**

Ez eskena hau aztertu baino lehen. Egiten hasi zareten pintada hau bihurgune garrantzitsua izango da zuen bizitzan. Ustekabeko inimiziazio erritua, helduarorako sarrera bapateko eta dramatikoak. Hau argi edukitzea nahiko nuke, aurrera jarraitu baino lehen.

**Gazte 2**

Hau zeharo jota dago. Ez egin kaso putarik.

**Gazte 1**

Nor arrio zara zu?

**Dramaturgoa**

Dramaturgoa.

**Gazte 1**

Dramazer?

**Gazte 2**

Esan dizut ba, jota dagoela.  
(Dramaturgoari) Zoaz pikutara eta utzi bakean, ostia!

**Dramaturgoa**

Zer egin nezake konbenzitzeko?

**Gazte 2**

(Dramaturgoagana hurbilduz) Nik badakit zer egin dezakedan zuk ospa egiteko.

**Dramaturgoa**

Ez da oso zintzoa nire aldetik, baina ez didazue beste erremediorik uzten. Begira.

Dramaturgoak publikoak erakusten die. Gazte biek harrituta begiratzen dute.

**Gazte 1**

Ze...?

**Gazte 2**

Zer egiten du jende horrek hemen?

**Dramaturgoa**

Zaila da azaltzen. Zuek gehiago ez nahastearren, demagun ikusleak direla.

**Gazte 1**

Ikusleak? Zer ikusten ari dira?

**Dramaturgoa**

Eskena hau. Funtsean askoz konplikatua da. Trama baten korapiloak nola funtzionatzen duen azaldu nahi diet.

**Gazte 2**

Zer??

**Dramaturgoa**

Ahaztu. Ikusleak eta kitto.

**Gazte 1**

Zer diozu? Hau ez dela benetakoa? Gu ez garela existitzen?

**Dramaturgoa**

Beste galdera zaila. Ikusleentzat ez da benetakoa. Baina zuentzat, eta hau da ajola diguna, horixe benetakoa dela. 2012ko Martxoak 29an gaude, eta zuek Alderdi Popularrak ezarritako Lan Erreformaren kontra antolatu den Greba Orokorrean parte hartzen ari zarete. Hemendik ez oso urrun manifestariak eta poliziak liskarrean ari diren bitartean, zuek pintada bat idazten hasi zarete horma honetan, sistema kapitalistaren aurka. Benetako gertaera, prentsa edo internet-eko hemeroteketan edozeinek ziurta dezakeena. Eta orain, zuen atentzioa nereganatu dudanez, ekintza hau ikuspuntu dramaturgikotik aztertuko dugu.

**Gazte 2**

(Oldarkor) Baina ze arraio...!

**Gazte 1**

Utziozu hitz egiten.

**Dramaturgoa**

Milesker. Esan dudan bezela, kontaera hau...

**Gazte 2**

Egon, egon, ze kontaera?

**Dramaturgoa**

Zuena. Gertatu zitzaizuen... Gertatuko zaizuen, une honetatik aurrera. Istorioak ez du planteamendu luzeren beharrik. Zuen itxurak eta egoerak berak korapiloan zuzenean sartzeko behar dugun guztia azaltzen digute.

Gazte 1-ek txanoa kentzen du. Gazte 2-ak jarrita du oraindik.

**Gazte 1**

Ze itxura?

**Dramaturgoa**

Bi ikasle gazte, beste hainbat hiritako beste hainbat gazte bezela, gobernuaren erreformen kontra mobilizatu zairenak. Oker nabil?

**Gazte 2**

Ez.

**Dramaturgoa**

Zuek zarete kontaera honen protagonistak. Izan ere, protagonista bakarra zarete. Ziur desberdinak zaretela, baina honek ez du istorio honetan eraginik. Horregatik, izakera kontraste xume bat besterik ez dut marraztu: zu (Gazte 1-i) lasaia; zu (gazte 2-ri) sutsuagoa.

**Gazte 2**

(Sutsu) Zer esan nahi duzu "sutsuagoa"-rekin??

**Dramaturgoa**

(Kasurik egin gabe) Gutxieneko informazio hau nahikoa da tramaren korapiloan zuzenean sartzeko. Pintada honekin hasiko da, eta gero eta tankera dramatikoagoa hartzen joango da.

**Gazte 1**

Pintada hau ez egiteko geldiarazi gaituzu?

**Dramaturgoa**

Zilegi balitz egin egingo nuke, hemendik ziztuan ospa egiteko erregutuko nizueke... Baina ezin dut.

**Gazte 2**

Zer... Zer gertatuko zaigu pintada egiten badugu?

**Dramaturgoa**

Istorioaren amaiera aurreratuko banizue, kontaerak indarra galduko luke.

Bapatean, espazioaren beste gune batean, Ertzaintzako Inspektore baten irudia agertzen da.

**Inspektorea**

Erasoan parte hartu zenuten?

**Gazte 1**

Zer?

**Inspektorea**

Erantzun!

**Gazte 2**

(Dramaturgoari) Nor da?

**Dramaturgoa**

Komisarian galdeketa egingo dizuen inspektorea.

**Gazte 1**

Zergatik?

**Dramaturgoa**

Agintearen kontrako atentatua egitea leporatuko dizuete.

**Inspektorea**

Galdera bat egin dizuet!

**Gazte 1**

Ze atentatu? Noren agintearen kontra?

**Inspektorea**

Ertzain bati eraso egin zenioten, manifestaldian sortu ziren istiluetan.

**Gazte 1**

Guk ez dugu inongo erasotan parte hartu! (Dramaturgoari) Zuk badakizu, gu hona etorri gara pintada bat egitera.

**Dramaturgoa**

Baina nik ezin dut deklaratu. Argi denez, ni ez nintzen bertan egon.

**Inspektorea**

Eta gainera, zurea ikuspuntu bat besterik ez da. Ez dauka egia objetiboaren mailarik.

**Dramaturgoa**

Horretan arrazoi duzu.

**Gazte 1**

(Dramaturgoari) Zergatik diozu hori?

**Inspektorea**

Ziur gaudelako eraso hartan parte hartu zenutela.

**Gazte 1**

Gezurra! Gezurra!

Inspektorearen irudia desagertzen da.

**Gazte 2**

Non dago? Nora joan da?

**Gazte 1**

Ze ostia gertatzen ari da hemen? (Dramaturgoari) Nola egin duzu hori? Ospa hemendik, joder!

**Gazte 2**

Esan dizut, ba, burutik eginda dagoela.

**Gazte 1**

Utzi bakean, zuk eta zure prestigiatore truko puta horiek!

**Dramaturgoa**

Ongi da. Banoa, nahi baduzue. Baina istorioa ez da horregatik aldatuko. Besterik gabe, inork ez ditu gertaerak hautatu eta ordenatuko, kontakizunak zentzu dramatikoak eduki dezan.

Joaten hasten da.

**Gazte 1**

Egon, egon... Zertarako zaude hemen?

**Dramaturgoa**

Esan dizuet, ba: benetako gertaeretan oinarrituriko trama bat osatzeko.

**Gazte 1**

Baina komisariako galdeketa hori gertatuko da benetan?

**Dramaturgoa**

Ez hitz berberekin, jakina. Gertaerak modurik fidelenean kontatu nahi bada ere, beti egoten da urruntze bat. Eta gainera, inspektore horrek ondo azaldu duenez, nik ez dut egia kontatuko.

**Gazte 2**

Zer esan nahi duzu?

**Dramaturgoa**

Ezingo nuke kontatu, nahita ere. Egia ez da existitzen.

**Gazte 1**

Esaldi erosoak, parte hartu nahi ez duenarentzat.

**Dramaturgoa**

Gaizki azaldu dut. Funtsean egia existitzen da. Baina inor ez da gauza egia bere osotasunean ikusteko eta are gutxiago azaltzeko. Demagun egia spray hau dela.

Gazte bati spray-a kendu eta lurrean kokatzen du, gazte bien artean.

**Dramaturgoa**

Biok spray bat ikusten ari zarete. Baina zuk (bati) eta zuk (besteari) ikusten duzuenaz ez da berdina. Zu sprayaren alde bat ikusten ari zara, zu beste bat. Spraya bere osotasunean ulertzeko, zuk eta zuk ikusten duzuenaz entzun beharko genuke. Eta nik ikusten dudana ere. Edo beste edonork.

Irudi berri bat agertzen da espazioan. Emakume bat da.

**Ama**

Nire ikuspuntua onartuko zenuke?

**Gazte 1**

Ama! Zer egiten ari zara hemen?

**Ama**

Ez nago hemen. Egia esan... hau guztia hasi zenetik, ez nago inon. Bizi gabe bizi naiz.

**Gazte 1**

Baina zer gertatu zen? Zer gertatuko da? Eraso horregatik kondenatuko gaituzte?

**Gazte 2**

Gu ez gaude han. Borroka beste kale batean gertatzen ari da.

**Gazte 1**

Badakizu egia diogula, ez ama?

**Ama**

Badakit, bai. Baina horrek ez du nire mina arintzen.

Amaren irudia desagertzen da.

**Gazte 1**

Ama! Ama!

**Dramaturgoa**

Tramaren une honetan, pretsonaia garrantzitsu bat sartuko dut: eraso jaso zuen ertzaina.

Ertzainaren irudia agertzen da. Haren ondoan, lehengo Inspektorea.

**Inspektorea**

(Ertzainari) Begiratuiezu arretaz. Esan, erasoan parte hartu zuten?

**Ertzaina**

Ez nago ziur.

**Inspektorea**

Saiatu zaitez.

**Ertzaina**

Erasotzaileek jertse gorriak zituzten.

**Inspektorea**

Hauek jertse gorriak dituzte.

**Gazte 2**

Beste askok bezela!

**Ertzaina**

Ez dakit. Ez ditut aurpegiak gogoratzen.

**Inspektorea**

Zure aitorpena funtsezkoa da! Esan, hauek izan ziren?

**Ertzaina**

Ez dakit!

**Inspektorea**

Egin esfortzu bat, joder! Esan beraiek ote ziren. Esan beraiek izan zirela!

**Ertzaina**

Ez da hain erreza!! Inguratuta nengoen, ehiza txakurrek basurdea inguratzen duten lez. Denak hozka, denak zaunka... Holaxe nengoen ni. Eta bai, baliteke hauek izatea. Jertse gorria zuten.

**Gazte 1**

Ez ginen gu izan!!

**Dramaturgoa**

Utziozue hitz egiten.

**Gazte 2**

Zergatik? Gezurretan ari da. Ez al duzu ikusten? Gu hemen gaude!

**Inspektorea**

Orain non zaudeten ikusten ari naiz. Duela bost minutu ez dakit.

**Gazte 1**

Ixildu!

**Dramaturgoa**

Barkatu, baina nire eskenan neu naiz nor eta noiz hitz egiten duen erabakitzen duena.

**Gazte 1**

Beraiekin zaude, orduan?

**Dramaturgoa**

Hori uste al duzu?

**Gazte 2**

Ez. Hori baino okerrago. Zu erdian jartzen zara.

**Dramaturgoa**

Ez, ba. Protagonista aukeratzen dudan unetik, alde batera lerratzen naiz. Ertzainaren ikuspuntutik konta nezake dena, eta istorio erabat desberdina litzateke.

**Gazte 1**



Ba konta ezazu bere istorioa nahi baduzu,  
baina nik gezurretan ari dela diot.

**Dramaturgoa**

Ez nago hain seguru.

**Gazte 2**

Eta gure alde zaudela diozu?

**Dramaturgoa**

Esan nahi dut, balitekeela berak pentsatzea  
zuek izan zinetela... Zuek izango zaretela  
jipoituko duzuenak. Ezin da jakin, nik neuk  
ez dakit zenbat egia eta zenbat gorroto  
dagoen bere hitzetan.

Ama agertzen da.

**Ama**

Zergatik diozu ez dakizula? Erasoaren  
akusazioa frogatu gabe geratu zen.

**Dramaturgoa**

Halaxe da.

**Gazte 1**

Orduan, ez zaigu ezer gertatuko?

**Dramaturgoa**

Oraingoz ez. Baina tramak hasi besterik ez  
du egin.

**Ama**

Hau ez da trama bat! Hau gertatu da,  
gertatzen ari da oraindik! Utziozu gurekin  
jolasteari!

**Dramaturgoa**

Nire lana bete besterik ez dut nahi.

**Ama**

Ez duzu gure tragedian muturra sartzeko  
eskubiderik, eta are gutxiago zure gogora  
kontatzeko.

**Gazte 1**

Ze tragedia, ama? Zer gertatu da? Ez gara  
istilutan sartuko. Pintada bat idatzi,  
besterik ez dugu egingo. Besterik ez, ez  
diogu inori jipoirik emango, ama, hitz  
ematen dizut.

**Dramaturgoa**

Badakigu. Eta entzun duzuenetz, ertzaintzak  
ez du aurkituko zuek erasoarekin lotuko  
zaituzten aztarnarik.

Inspektorea agertzen da.

**Inspektorea**

Ezin izan genuen erruduntasuna frogatu.  
Baina horrek ez du esan nahi errugabeak  
zaretenik.

**Gazte 2**

Zer diozu zuk? Ze koño dakizu zuk...?

**Dramaturgoa**

Lasaitu zaitez.

**Gazte 2**

Ez naiz lasaituko, ostia. Arrazoi gabe  
salatu...

**Gazte 1**

(Beste gazteari) Ixo, joder!

(Dramaturgoari) Zer gertatuko da gero?

**Dramaturgoa**

Jarraitu baino lehen, bada ordua  
antagonistei buruz hitz egiteko. Nortzu  
diren somatzen duzue?

**Gazte 1**

Ertzaina, Inspektorea... Gehiago daude?

**Dramaturgoa**

Ertzaina ez da antagonista. Asko jota,  
kontakizuna abian jartzeko beharrezko  
eragilea. Baina erasoaren salaketatik libro  
gelditu zaretenetik, bere rola desagertzen  
da. Benetako antagonista, gainera,  
poteretsuagoa da. Hala behar du izan  
kontakizunak indarra izango badu.  
Antagonista ahul batek trama txikiagotzen  
du.

**Gazte 2**

Nor da, ba?

**Dramaturgoa**

Ez dauka aurpegirik. Edo hobe esanda,  
aurpegi asko ditu.

**Gazte 2**

(Ironiaz) Bai. Sistema, ezta?

**Dramaturgoa**

Hortik doa, baina "sistema" abstraktoegia  
da.

Txistera eta puroz ornituriko pertsonaia bat agertzen da,  
harropuzturik mintzatzen dena.

**Sistema**

Ez ukatu nire presentzia, dramaturgo jauna. Ondo etorriko zaio zure istorioari txistera eta purodun aberats bat, kapitalismoaren perbertsio guztien isla.

**Dramaturgoa**

Badakit zein den zure jokoa. Dramaturgia hau topikoz pobretu nahi duzu.

**Sistema**

Zergatik? Ez al duzu uste krisialdi hau geuk diseinatu dugula, aberatsak aberatsago eta pobreak pobreago bihurtzeko?

**Dramaturgoa**

Alferrik ari zara nirekin. Hobe duzu joan.

Sistema desagertzen da.

**Dramaturgoa**

Hau ez da sistema ekonimokoari buruzko istorio abstrakto bat, gertaera konkretu bat baizik, eta jende konkretuan gorpuztu behar da. Norbait, komisarian, erasoaren egileek ezin harrapatu izanagatik suminduta. Beste bat, errudunen bat kosta ala kosta aurkitu behar dela esango duena. Hirugarren bat, hariak mugitzen hasiko dena, auzia norabide egokian jartzeko...

**Gazte 1**

Ze norabide? Zer gertatuko da? Zergatik ez diguzu behingoagatik esaten?

**Dramaturgoa**

Ulertzen dut zuen ezinegona, baina esan dizuet, ezin dut amaiera aurreratu. Pausuz pausu joan behar dugu. Orain hasiko da korapilo honen bigarren partea, aurpegi anitzeko antagonista horrek zuek auziperatzea erabakiko duenean.

**Gazte 2**

Nola auzipera? Ez al duzu ba esan ezin izan zutela eraso frogatu?

**Dramaturgoa**

Ez zaituzte erasoagatik epaituko. Pintada bat egiteagatik baizik.

**Gazte 1**

Zer? Pintada hau egiteagatik?

**Dramaturgoa**

Idazten hasi zareten pintada horregatik. Ni joandakoan bukatuko duzuen pintada horregatik.

Gazte biek elkarri irribarre lasaia emanaz.

**Gazte 1**

Pintada bat? Hori da dena?

**Dramaturgoa**

Salaketa zehatza zera izango da: "desordena publikoa".

**Gazte 2**

Eta zergatik ikaratu gaituzu arrazoi gabe?

**Dramaturgoa**

Arrazoi gabe ikaratu zaituztet, ba?

**Gazte 2**

Hara bestea! Epaiketa bat pintada bategatik... Ados, putada bat da, gurasoak haserretuko zaizkit, badakit, baina zigor administratibo bat izango da. Isun bat, ez? Hori gertatuko da, ez?

**Dramaturgoa**

Epaiketa Bilboko Auzitegi Penaleko 1. Aretoan egingo da.

**Epailea**

...non frogatuta geratuko den gazteon parte hartze zuzena epaituriko gertaeretan.

**Gazte 1**

Pintada?

**Epailea**

Ondorioz, akusatuek urte bat eta hiru hilabeteko kartzela zigorra jasoko dute desordena publikoaren delituagatik.

**Gazte 1**

Ez. Ezin liteke!

**Gazte 2**

Hau ez da gertatuko. Ezin da gertatu. (Dramaturgoari) Gure kontura barre egiten ari zara. Kabroia!

Gazteak Dramaturgoarengana doaz, mehatxuka. Ama agertzen da.

**Ama**

Utziozue bakean!!

Gazteak gelditzen dira.

**Ama**

Eta lasaitu! Ez dabil gezurretan. Hori da gertatu zena... gertatuko dena.

**Dramaturgoa**

Baina epai honek ez zaituzte kartzelera eramango. Antezedenterik gabe, kartzelaratzea bertan behera geratuko da.

**Gazte 1**

Eskerrak! Metakurgia zikloa bukatu berri dut eta praktikekin hasi behar naiz. (Amari) Ez dizut disgustu gehiago emango, benetan, ama. Ikasketak bukatuko ditut.

**Ama**

Ezin izango duzu.

**Gazte 1**

Zergatik ez? Ez duzue ba esan ez gaituztela kartzelan sartuko?

**Dramaturgoa**

Istoria ez da hemen bukatzen.

**Gazte 2**

Joder! Hau erotzeko modukoa da!

**Dramaturgoa.**

Azkeneko bihurgunea falta da oraindik, "betebeharreko eskenara" eramango gaituena.

**Gazte 1**

Zer da hori?

**Dramaturgoa**

Ikusleak konsziente edo inkonszienteki aurreikusten duen eskena klimatikoa. Kontalariak kontakizunean zehar arrastoak utzi behar ditu oharkabea, ikusleak eskena hura susma dezan. Gure kasuan, amaren agerpen melodramatikoa, bere minak, hasieratik ohartarazten digu gertaera tragiko bat gertatuko dela ezinbestean.

Gazte biak ikaratuta daude.

**Gazte 1**

Esaiguzu zer gertatuko den.

**Dramaturgoa**

Zuen antagonistek errudun bat topatu behar dute, nola edo hala. Epaiaren kontrako errekurtsioa tramitatuko dute probintziako auzitegian.

Epailea agertzen da.

**Epailea**

Bertan, berriro ere frogatu gabe geratuko da gazteon partehartzea ertzainaren kontrako erasoan.

**Gazte 1**

Ongi!

**Epailea**

Baina kasua Auzitegi Penaleko 1. Aretora bueltatuko dute, bertan erabakitzeko ea agrabantetzat jo daitekeen manifestaldian mozorroturik egotea.

**Gazte 2**

Ze mozorro?

**Dramaturgoa**

Jertsearen txanoa jarrita eramatea, alegia.

**Gazte 2**

Zer dio honek? Zu burutik jota za...?

**Gazte 1**

Ixo, ostia! Utzidazu entzuten.

**Epailea**

Azkenean, epaileak baietz erabakiko du. Burua txanoaz estalita eramatea desordena publikoaren agrabantea dela, eta ondorioz zigorra bikoiztuko zaie akusatuei, urte bat eta hiru hilabetetik, bi urte eta erdira pasatuz.

**Dramaturgoa**

Beraz, azkenean kartzelera joan beharko duzue.

**Gazte 1**

Ezin liteke. Ezin liteke, joder!

**Gazte 2**

(Dramaturgoari) Badakizu zer, putakumea? Ez dut ezer sinisten. Ez dakit nola eta zertarako egin duzun hau guztiau, baina ez dut ezer sinisten. Gustu txarreko broma puta bat da!

**Dramaturgoa**

Ez zaizu sinesgarria iruditzen?

**Gazte 2**

Ze sinesgarri ta ze ostia ? Ez hitz egin horrela, joder!! Nondik atera zara zu?

**Gazte 1**

Utziozu hitz egiten! Utziozu azaltzen!

**Dramaturgoa**

Ulertzen dizuet. Trama hau sinisteko zaila da. Ez dago orekarik kausa eta efektuaren artean: pintada bat eta kartzela. Eta bai, txanoaren grabanteak gustu txarreko broma ematen du. Kontakizun hau fikziozkoa balitz, trama moldatu beharko nuke sinesgarri bihurtzeko. Baina kontua zera da, benetan gertatu zela, eta nik, hain zuzen, desoreka hori azpimarratu nahi dut.

Inspektorea agertzen da.

**Inspektorea**

Zuk komeni zaizuna azpimarratu duzu. Nire ikuspuntua azaltzen utziko bazenit...

**Dramaturgoa**

...beste kontakizun bat litazteke...

**Inspektorea**

...jendeak ulertuko luke horrela jokatu genuela zinez uste dugulako gazte horiek erasoan parte hartu zutela.

**Gazte 1**

Gezurra!

**Dramaturgoa**

Eta frogatu ezin izan zenutenez, bidezior judizial bat asmatu zenuten, nola edo hala ordaindu zezaten.

Epailea agertzen da.

**Epailea**

Prebarikazioa insinuatzen ari bazara, egin kontu epaiak ez duela aitzakirik kode penalaren ikuspuntutik.

**Dramaturgoa**

Zalantzarik ez. Kode penalaren elastikotasunak edozein argudio onar dezake. Justizia gomazkoa da.

**Inspektorea**

Nora jo nahi duzu? Progrearena egin nahi duzu, galdutako kausen defendatzaile?

**Dramaturgoa**

Eskandalagarria iruditu zitzaidan eta kontatu nahi nuen, besterik ez.

**Inspektorea**

Hara gure artista sentikorra! Hau da ezagutu duzun injustiziarik handiena? Bi urteko kartzela zigorra, ziur aski murriztuko dena? Ez dago drama latzagorik munduan? Urrutira jo gabe, ez al du ETA-k zure herrikide mordoa asasinatu, duela oso gutxirarte? Zergatik ez duzu horretaz hitz egiten, bazterrok nahastu gabe?

**Dramaturgoa**

Badakit ez dela tamainu handiko drama. Baina heltzen ari den garaiari buruz zerbait esaten duela ere badakit.

Sistema agertzen da.

**Sistema**

Istorio ziztrina da, garrantzi gabeko anekdota. Ongi egin duzu ni baztertuta. Nire parte hartzea ez zetorren harira.

**Dramaturgoa**

Ba hara, orain harira datorrela pentsatzen hasita nago.

**Sistema**

(Irriz) Ez gara sekula ados jartzen.

Sistema desagertzen da.

Dramaturgoak spraya bueltatzen die gazteei.

**Dramaturgoa**

Eta hau izan da guztia nire aldetik. Milesker zuen materialea ordenatzen uzteagatik. Orain banoa. Segi.

Ama agertzen da.

**Ama**

Itxaron! Ezin duzu horrela joan! Lagundu egin behar diezu!

**Dramaturgoa**

Nola?

**Ama**

Galerazi pintada egiten!

**Dramaturgoa**

Ezinezkoa da.

**Ama**

Zuk istorio honen hariak gobernatzen dituzu!

**Dramaturgoa**



Fikziorako moldaketarenak, besterik ez.  
Ezin dut benetako gertaeretan eskurik sartu, ondo dakizu zuk hori.

**Ama**

Ez! Badakit lagundu ahal diezula! Zuk egin dezakezu!

**Dramaturgoa**

Joan egin behar naiz, anderea.

**Ama**

Ez zaitez joan! Mesedez, ez joan! Ezin duzu onartu! Kontu garbitze bategatik gazte biren bizitza hondatu behar dute!

**Dramaturgoa**

Ez jarri txarrean, emakumea.  
Kartzelaldiak ez ditu hondatuko. Badakit ez dizula askotarako balio une honetan, baina baliteke indartsuago ateratzea ataka honetatik. Ez dakigu zer gertatuko den. Hori istorioaren desenlazeari dagokio, eta oraindik idatzi gabe dago.

**Ama**

Baina zerbait egin behar duzu! Munduko zein herritan sartzen dituzte gazteak kartzelan pintada bat egiteagatik? Munduko zein herritan??

**Dramaturgoa**

Galdera ona.

Dramaturgoa badoa.

Hasieran off-ean entzuten zen burrundaia berbera entzuten da berriro.

Gazte biek pintada bukatzen dute. "KAPITALISMOA PIKUTARA"